



MARTXOAREN 8KO MOZIOA

ALEGRIA-DULANTZI

Gaur, martxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko Egunean, gizaki garen aldetik egun berezkotzat jotzen diren zenbait eskubide aitortzeko egindako bide luzea ospatu eta nabarmendu nahi dugu.

Lortutako gizarte aurrerapenak, egun hain ahulak ematen dutenak, lege berrien onarpenaren ondorioz, ez dira denboran gertaturiko bilakaera naturalaren emaitza izan, baizik eta emakumeek aurrera eramandako borroka neketsu eta etengabearen ondorio.

Mota orotako emakumeak, bakarka eta kolektiboki emakume guztientzako eskubideak aldarrikatu dituztenak eta aldarrikatzen segitzen dutenak.

Hauen moduko une zailetan, gizartearen gutxiengo batek krisialdi ekonomikoa erabiltzen du eskubide ekonomikoak ez ezik, kalteak pairatzen dituen gizartearen gehiengoaren eskubide politiko, zibil, sozial eta kulturalak ere urratzeko, eta gehiengo hori, tamalez, emakumeek osatzen dute gehienbat.

Gizartearen interes desberdin anitzak defendatzeko gero eta ezgaiagoa den sistema politikoaren zati baten gaineko konfiantza ezarekin eta itxurazko gogogabetasun sozial hedatuarekin, mugimendu feminista da beste behin justizia soziala eskatuz kalera ateratzen dena.

Tokiko Erakunde gisa, gaurkoa bezalako egunean, emakume bakoitzaren eta emakume elkarteen lana, manifestazioak, inkonformismoa, aktibismoa eta borroka aintzatetsi eta eskertu nahi ditugu, nekaezin borrokatzen direlako guztiontzako gizarte justuago eta bidezkoagoaren alde.

Bereziki egin nahi diogu aurre ideologia kontserbadore eta ultrakatolikoak itzultzeari, “Kontzebituaren bizia eta emakume haurdunaren eskubideak babesteko lege organikoa” (ordena honetan), kasu, onartuz, zeinekin familia eredu tradizional eta heteropatriarkala sustatzen den, emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideak bortxatuta.

Familia eredu horrek emakumeen autonomia, erantzukizun, berdintasun eta askatasun mota oro ukatzen du, eta sexualitatea bizitzeko askotariko moduak zigortzen ditu.

Testuinguru larri baino larriago honetan, esan beharra dugu egun gehiago garela historikoki nagusitu diren eredu tradizionalei eta ezarri nahi dizkiguten atzerapausoei aurka egiten diegun pertsonak.

Hori dela eta, erakunde gisa, emakume guztiek egunero guztion onerako aurrera eramaten duten borroka lagundu eta babestu nahi dugu.

Helburu horrekin, Udalak hitzematzen du:

- Emakumeen partaidetza soziopolitiko eta elkarte-sarea sustatu, ahalbidetu eta babestuko dituela.
- Berdintasun politikak sustatuko dituela, horretarako aurrekontu-partida bat esleitzuz.
- Genero ikuspuntua udal kudeaketaren bizkarrezurtzat hartuko duela.
- Udal erakundeen eta herritarren arteko aliantzak sortuko dituela, tokiko berdintasun politikak lantzeko.
- Tokiko berdintasun politikak sustatzean, emakumeak eta emakumeen edota feministen mugimendu antolatua funtsezko solaskidetzat onartuko dituela eta mugimendu horiekiko harremanak sustatuko dituela.

Azkenik, emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortu nahi duzuen emakume eta gizonak Alegria-Dulantzin martxoaren 8a dela-eta egingo den kontzentrazioan parte hartzerantz animatu nahi zaituztegu.

Kontzentrazioa: Ostiralean, martxoaren 7an, Herriko Plazan 19:30ean.



MOCIÓN 8 DE MARZO

ALEGRÍA DULANTZI

Hoy 8 de Marzo Día Internacional de la Mujer queremos celebrar y destacar el largo camino que las mujeres han recorrido para que algunos derechos que hoy parecen inherentes a la condición humana, les sean reconocidos.

Los avances sociales conseguidos, que hoy parecen tan frágiles, con la aprobación de nuevas leyes, han sido resultado, no de una evolución natural en el tiempo, sino de una ardua y constante lucha que las mujeres han protagonizado.

Mujeres de todas las características, que de manera individual y colectiva han reivindicado y reivindican derechos para todas las mujeres.

En momentos difíciles como estos, una minoría social utiliza la crisis económica, para menoscabar no solo los derechos económicos sino también los derechos políticos, civiles, sociales y culturales de una amplia mayoría social que lo sufre y en esta mayoría por desgracia si están y son mayoritariamente las mujeres.

Con la desconfianza en parte del sistema político actual cada vez menos capaz de representar a los múltiples intereses plurales de la sociedad y la aparente apatía social generalizada, es el movimiento feminista una vez más el que sale a la calle reclamando justicia social.

Como Institución local, un día como hoy, queremos reconocer y agradecer el trabajo, las manifestaciones, el inconformismo, el activismo, la lucha de cada mujer y de cada asociación de mujeres que incansables, pelean por una sociedad más justa y equitativa para todas y todos.

Especialmente queremos oponernos a la vuelta a ideologías conservadoras y ultra católicas, a través de la aprobación de leyes como la “Ley orgánica para la protección de la vida del concebido y de los derechos de la mujer embarazada”, (en este orden), con la que se potencia el modelo de familia tradicional y heteropatriarcal, que dinamita los derechos sexuales y reproductivos de las mujeres.

Que niega cualquier tipo de autonomía, responsabilidad, igualdad, y libertad de las mujeres y que penaliza las múltiples formas de vivir la sexualidad.

En este contexto tan alarmante, debemos decir que hoy somos más, las personas que nos resistimos a los modelos tradicionales históricamente imperantes, y a los retrocesos que nos quieren implantar.

Por este motivo, queremos como institución apoyar y acompañar en la batalla que por el bien común libran cotidianamente todas las mujeres.

Con este objetivo el Ayuntamiento se compromete a:

- Impulsar, fortalecer y apoyar la participación sociopolítica de las mujeres y el tejido asociativo.
- Impulsar políticas de Igualdad asignando una partida presupuestaria para ello.
- Considerar la perspectiva de género como columna vertebral en la gestión municipal.
- Construir alianzas entre las instituciones municipales y la ciudadanía para la elaboración de políticas de igualdad locales.
- Reconocer a las mujeres y al movimiento organizado de mujeres y/o feminista, como interlocutor clave en el impulso de las políticas locales de Igualdad y favorecer nuestras relaciones con estos movimientos.

Por último, animaos a todas las mujeres y hombres que persiguen la igualdad de mujeres y hombres a participar en la concentración que con motivo del 8 de marzo se celebrará en Alegría- Dulantzi.

Concentración: Viernes 7 en la Herriko Plaza a las 19.30 horas de la tarde.